



Garapen mantsoa edo ezberdina



Judit Falk

Erderatik itzulpena: Ezosi Arizaga eta Juan Martin Elexpuru

Zer da garapen mantsoa? Zer ulertzen dugu hitz hauek entzutean?

Niri nozio honek, garapen goiztiarrak bezala, ez dit gauza handirik esaten.

Gai honetaz dudan iritzia azaltzen hasi aurretik, utzidazue Einsteinen biografiako hitz batzuk aipatzen, eta baita hark bere buruaz esaten zituen batzuk ekartzen ere. Haren biografoak dionez, Einsteinen haurtzaroan ez zen nabarmendu haren jenio lokartua iragar zezakeen ezer. Alderantziz gertatu zen, garapen orokor mantsoa izan baitzen haren haurtzaroaren ezaugarri nagusia, hizkuntza alorrean batez ere. Esaten da ez zela normal eta zuzen berba egiten hasi bederatzi urte bete arte. Denbora hartzen omen zuen galderei erantzuteko. Gurasoak kezkatuta zeuden eta seme motel samarra zutela pentsatu zuten. Dislexia motaren baten zantzuak zirelakoan zeuden.

Einsteinen semeak biografoari azaldu zionez, aita oso mutiko geldoa zen txikitik, izaera moteleko gizajo bat. Haren irakasleek ez zuten arrakasta handirik espero harengandik. Familiako istorio batek dionez, behin aitak aholku eskatu omen zion irakasle bati, semearen etorkizuna nondik bidera zitekeen asmatu nahirik. Oso simplea izan omen zen erantzuna: “Berdin dio, edozertan jarduten duelarik ere ez da oso urrun helduko”.

Esku arteko gaiari lotuz, interesgarria iruditzen zait Einsteinek berak bere garapen atzeratuaz esandakoa: “Bere abantailak izan zituen atzerapen honek, zeharbidetik bada ere nire benetako bidera eraman ninduelako”.

Hona hemen aipua: “Neure buruari galdetu izan diot nola daitekeen neu izatea erlatibitatearen teoria garatu duena. Uste dut gizakiak ume-umetatik planteatzen dituela denboraren eta espazioaren problemak. Nire garapena motela izan zenez, berandu heldu nintzen arazo horietara, eta, normala denez, sakonago egin ahal izan nuen gogoeta, ohiko adinean galdera horiek erantzuten saiatzen den gaitasun normaleko beste edozein hurrek baino.

Esan beharrik ez dago Einsteinen garapena eta geroko maila intelektuala ez direla ohikoak. Galdera bat plazara genezake: zer da “normala”? Haurraren garapenean jabetze-prozesu guztiak era askotakoak izaten dira, bai xehetasunetan eta baita agerpen-adinari dagokionean ere. Aniztasun hau onartzea ezinbestekoa da garapenaren fenomenoaren ulertu ahal izateko.

Irizpide hau erraz onartzen da gorputz-hazkondeaz aritzerakoan, baina ez hainbeste beste arloez dihardugunean.

Zera dio Rudolf Steiner-ek, Waldorf pedagogiaren sortzaileak: “maila normala, normalizat hartzen dena, alegia, nagusiek espero dutenarekin bat datorrena izaten da”.

Orokorrean hitz eginda, haur txiki baten garapena normalizat jotzen da pediatria, haur-hezkuntza eta psikologia eskuliburuak markatutako erritmoak eta taulak jarraitzen dituenean.

Gainera, askotan esku-hartzea aholkatzen dute, baldin eta haurrari “arauek” agintzen dutenarekiko atzerapenen bat sumatzen bazaio. Nola bizkortu ume horren garapena? Batzuetan, “espero behar denak” norberak jaso dituen ideiak islatzen ditu soilik, iritzi publikoan zein profesionalean oso errotuta dauden ideiak, hori bai.

Gogoratu beharra dago, gainera, *baby-test*-ek eta garapen-eskalek interes handia piztu zutela bere garaian.

Nahiz eta lehen haurtzaroko profesional batzuek, tartean eskala horien zenbait egilek, taula horien erabiltzaileei ohartarazi adin bakoitzari dagozkion frogak ez direla garapen psikomotorea neur dezakeen eskala-maila gisa hartu behar, ez fidatzeko gauza hauekin eta garrantzi handiegirik ez emateko zenbaki-indizeei, batez ere iragarpen edo etorkizun-igarle gisa, hala eta guztiz ere gehituz doaz lehen haurtzarora zuzendutako eskalak, eta gero eta gehiago bideratzen dira zehaztasun teknikora aurkezpenean zein oharretan. Asko erabiltzen dira garapenaren jarraipen sistematikoa egiteko, anomaliak baztertzeko, hainbat erabaki hartzeko (adopzio kasuetan, esate baterako, zenbait herrialdetan). Lortutako emaitzak batz bestekoarekin alderatzen dira eta ontzat ematen da balore bat; edo eta hilabete, bi edo hiruko atzerapena duela ikusten bada, horren aurrean zer egin erabakitzen da.

Haur jaioberri eta txikien gaitasun goiztiar ezustekoei buruz azken hamarkadetan egin diren aurkikuntza zientifikoek, haurren garapen-gaitasunarekiko konfiantza handitu beharrean, exijenteago bihurtu ditu gurasoak eta irakasleak goiztiartasunari dagokionean.

Estimulazio goiztiarretara jotzen da sarri, zentzumenen gain-estimulazio sentsorialak, intelektualak, keinuzkoak eta hitzezkoak tartean. Guraso eta irakasleentzako eskuliburuak idazten dira ikaskuntza goiztiarren estimulazio programekin, horrela jabetzarik baloratuenak lortu ahal izateko, zenbat eta lehenago hobe.

Erreferentzia gisa erabiltzen diren adin-datuek onartuta daukate garapen erritmoak antzerakoak izaten direla normalizat hartzen diren haur guztietan. Baina datu horiek ez dute behar bezala azaltzen faseen denborak asko aldatzen direla haur batetik bestera, eta ezin dela inolaz ere aurreikusi fase horietako bakoitzera heltzeko bere denbora hartu behar izaten duten haurren etorkizuna.

Eta haur bakoitzaren ezberdintasunak ikusten eta normalean onartzen diren arren, tipo idealaren aldaera txikitat hartzen dira.

Askotan ahaztu egin ohi da eskaletan seinalatzen diren adinak batz bestekoak direla, eta ez direla nahastu behar ez idealarekin eta ez normalarekin. Beti egoten da gune normal zabal samar bat batz bestekoaren inguruan, bi norabideetan.

1938an, Emmi Pikler-ek, *Zer daki egiten zure haur jaioberriak?* bere lehen liburuan, ohartarazi zuen haurren artean ezberdintasun handiak daudela garapen-erritmoari dagokionez, baina ez zuen esan jabetzeak bizkortu egin behar direnik.

Egileak dio batz bestekoa baino mantsago garatzen diren haurrek, horretarako eskubide osoa izateaz gain, arrazoiak ere badituztela eta errespetatu egin behar direla. (Ez da kasualitatea hil eta gero Alemanian agertu zen Emmi Piklerren garapen motoreari buruzko lanen antologia batek *Emaidazue denbora* izenburua izatea).

Haurraren ikuspegitik, batere txundigarriak ez diren aro horiek ez dira itxaroten egoteko garai hutsak edo “geldialdiak”, esperientzia berri, esperimendu eta ariketa denborak baizik, non umeak aurre egiten dion une horretan aurre egiteko gai den betekizunei.

Horrela, bere ekintzei eta ekintza horien ondorioei buruzko informazioa beregana dezake.

Haurren arrakastarik gabeko ahaleginak ez dira porrot nabarmenak izango. Izan ere, horrela hartzen bada, bere ekintza-proiektua gelditu, berriro hasi edo aldatu egin dezake, eta esperientzien bitartez etengabe hobetu lehenagoko jabetzak.

Esperientzia berriei ekiteko eta aurrerapen berriei atea zabaltzeko gaitasuna ematen dio honek guztiak.

Eta ez dira jabetza berriak soilik esperientzia hauen emaitza (postura berri bat, adibidez). Berez ere atsegin- eta poz-iturri dira, eta eraginkortasun sentimen bat ematen dute, eta balore bat dira, ez bakarrik une horretarako, baita haurren etorkizunerako ere.

Garapen-motorearen alorrean ematen diren adin-diferentzia handiak azpimarratzeko, Emmi Piklerren ikerketetako zenbait datu ekarriko ditut, haren *Askatasunez Mugitu* liburutik aterata. Zazpiehun haur baino gehiagoren datuak aztertuta gero, garapen motorearen fase nabarmenenak aipatuko ditut (eseri, zutik jarri, lehenengo pausuak eman, eta zuzen eta seguru ibili).

Horregatik pentsatzen dugu garapenaren martxa bizkortzen saiatzea, trantsizio-aroak edo tarteak laburtzea, alferrikakoa izateaz gain, kaltegarria izan daitekeela, nahastu eta desantolatu egin ditzakeelako elkarren segidako prozesuak, baldin eta umeak ez baditu oinarri onarekin aurreko aroak menderatzen, eta ez baldin bazaio ematen behar duen denbora guztia hurrengo mailaren euskarri izan behar duten tarteko etapa guztiak bere kasa praktikatzeko.

Askok pentsatzen dute garapen-aro bati edo besteari dagozkion ariketak egitea aski dela prozesuak errazteko edo bizkortzeko, hau da, altuagotzat jotzen den mailara iristeko. Baina esan beharra dago heldutasun fisikoaren edo psikikoaren gainetik dauden gaitasunak lortzera bideratzen diren trebakuntza ariketek badaezpadako balioa dutela.

Bestalde, gauza guztiak elkarri lotuta daudenez, gauza guztiek eragiten dute gauza guztietan. Hau da, garapen somatikoa, psikikoa, psikosoziala eta afektiboa bere osotasunean kontutan hartzen ez badira, atzerapen edo desbideraketa bat zuzentzera gidatutako esku-hartze zuzenek mesede beharrean kalte egin dezakete.

Heldutasun gabezia bat dagoen kasuan, ekintzen kalitatea are okerragoa izaten da, eta arrazoi berberetatik haurra ohitu egiten da menderatzen eta kontrolatzen ez dituen jarduera eta posturretara. Ez du ahalmenik izaten bere oreka prekariora edota indarrez ezarri dioten kalitate txarreko jarduera bere kasa hobetzeko.

Gainera, zenbat eta handiagoa kontsideratu ustezko atzerapena eta ezina besterik ez bada ikusten lortu beharreko jabetza desiratuetik, orduan eta ariketa eta estimulazio gehiago jartzen dira martxan, eta horregatik haurrak gero eta posibilitate gutxiago izaten du bere berezko garapen mailari dagozkion ariketak eta funtzioak burutzeko. Batzuetan, gainera, apropos galarazten zaizkio azken hauek. Beti agintzen zaio egin ezin duen zerbait, eta une oroz aurre egin behar izaten die bere ahultasun eta porrotei.

Hala ere, bada "atzerapena" duten haurren egoera okertu dezakeen zerbait: nagusien laguntzaz lortu dituztenez laguntzarik gabe ere lor zitezaketen gorputz-esperientziak eta jarduera garatuenak, haur hauek galdu egin dezakete bere benetako garapen mailari komeni zaizkion jarduerak burutzeko plazera.

Askotan, gero eta beren buruarekin seguruago eta independenteago sentitu beharrean, zalantzakorrago eta baldarrago bihurtzen dira, eta ez bakarrik lehen haurtzaroan, betiko baizik.

Haurren porrota eta ondorengo baldartasuna ikustean, zuzeneko esku-hartzearen eta estimulazio metodoen aldekoek kausa eta efektua nahasten dute, hau da, justifikatuak sentitzen dira, konturatu nahi gabe porrotak eta baldartasuna ez direla jatorriko atzerapenaren ondorio, baizik eta, ziurrenik, berezko garapenarekin konfiantzarik ez izatearen emaitza.

Nire iritziz, bere kasa burutzeko gauza ez diren gero eta eginkizun gehiago eskatu beharrean, askoz ere onuragarriagoa litzateke bakoitzak bere gaitasunak era askotara garatu ahal balitu, modu ekintzaile eta aberatsean, bakoitzak bere mailan, atzeratuak balira bezala sentiarazi gabe.

Dena dela, orain artekoak ez du esan nahi emaitza positiboak lor ez daitezkeenik zenbait kasutan edo egoeratan. Baina pentsa daiteke emaitza horiek gehiago lortzen direla parte hartzen duten pertsonen kalitateagatik, erabilitako teknikengatik baino, haurra onartzen, ulertzen eta haren erritmoak eta gabeziak errespetatzen dituzten pertsonak daudenean tartean. Honengatik, esku-hartze hauek eragin mugatuak eta iragankorrak izaten dituzte sarri.

Askotan, jarduera, portaera eta ezagutza isolatuak bereganatuko ditu haurrak, nortasunean ondo txertatu gabeak, beren ondorengo garapena oinarritzeko balioko ez dutenak.

Esku-hartze eta estimulazio zuzenetara jo ordez, batz bestekoa baino garapen mantsagoa duten haurrei eskaini dakiekeena ez da beste edozein haurren hazkunde eta garapenari eskaini dakiekeenaren oso ezberdina: segurtasun afektiboa, pertsona nagusiekin harreman beroa, estimatua sentitzea eta pazientzia jarrera.

Nire ustez, arriskuan dauden hurrek eta minusbaliatuak behar duten heziketa giroa eta haur osasuntsu eta ongi garatuek behar dutena berdintsuak dira, nahiz eta batzuetan ondo pentsatu behar den giro hori nola sortu, eta modu bereziak asmatzea beharrezkoa izan.

Haurra onartuta sentitzen da den bezalakoa agertzeko eskubidea duenean eta bere garapen-erritmoan bizi daitekeenean. Eta erritmo hori ez bakarrik onartu, errespetatu ere egin behar da.

Haurrak bere garapenean akats gisa sentitzen duena ez da atzerapena edo zenbait saiakeratan huts egitea, bere inguruak ez onartzea baizik. Bere erritmo pertsonala ez onartzeak bere pertsona ez onartzea esan nahi du haurrarentzat.

Funtsean, haurraren unean uneko maila onartzeko edo ez onartzeko orduan nagusiak duen jarrerak eragin handiagoa izango du haurrak bere buruaz duen iritzian, zenbait jabetze, trebetasun edo portaera atzerapenarekin etortzeak baino. Haurrak onartzen eta estimatzen dutela senti dezan, harekiko jarrerak ez du gutxiespenik, disgusturik, pazientzia faltarik, dezepziorik, desesperaziorik edo gehiegizko babesik azaldu behar.

Dituen zailtasunez jabetu arren, ezin zaio garapena ezertan bizkortu. Ezin zaio oraindik ikasi ez duen ezer egiteko agindu, nahiz eta honek ez duen esan nahi aurrerapenei uko egin behar zaienik.

Haurraren garapen-ahalmenean dugun konfiantzak eta jarraipen arretatsuak, behapen zehatzetan oinarritutakoak, lagundu egiten dute ahal denik erantzun egokienak lortzen, eta honek guztiak aurrera egiteko gogoia pizten du haurraren.

Zalantzarik gabe, erantzun hauek indibidualak izango dira beti, eta bat etorriko dira haurraren behar eta gaitasunekin eta bizi duen egoerarekin.

Erantzun berezien artean oso elementu sinpleak egon daitezke. Esate baterako, giro materiala edo eguneko egitaraua antola daiteke, kontuan hartuz beti ere, xehetasun guztiei erreparatuta, noski, haur minusbaliatuaren edo garapen mantsokoaren gaitasun indibidualak; horrek ez du esan nahi horregatik taldeko beste haurren beharrak ahaztu behar direnik, batzuei zein besteei bermatu behar baitzaizkie egun osoa eroso eta gustura sentitzeko baldintzak.

Esan beharrik ez dago hurrek ez dituztela nagusiek beren gabeziez esaten dituztenak entzun behar, gaiztoa, ergela edo baldarra dela esaten ez zaien bezala. Sekula ez da gaizto edo ezdeus sentiarazi behar. Nagusiak ez du iritzirik eman behar hurrez, ez ditu kondenatu edo beste haur batzuekin konparatu behar.

Bere gaitasunetik at dauden eginkizunak gainditu beharrean ez daudenean, eta batere edo gutxi ezagutzen dituzten lanak egin beharrik ez dutenean, garapen mantsoko hurrek ez diote porrot etengabeari aurre egin behar izaten. Alderantziz gertatzen da: arrakasta txikiena ere kontuan hartzeko eta goraiatzeko motibo bihurtzen da.

Egoeren erregularitasunak, jatorduen eta bainuen sekuentziak, eta eguneroko momentu ezberdinekin edo asteko egun jakinekin lotutako gertaera kateek erraztu egiten diete haur jaioberriei denboran kokatzea.

Ohiko jardueren errepikapenak, jaioberrien segurtasun-sentimena handitzen duenez, haur minusbaliatuen konfiantza sendotzeko balio izaten du, baita adinean aurrera doazen heinean ere, baita ordurako aldaketa txikiak beste haurrei dibertigarriak egiten hasten zaienean ere.

Oso nabarmena da aldaketa txikiak ere egonezina sortzen diela haur minusbaliatuei, eta honek horrela izaten jarraitzen du aldaketak atsegina den zerbait dakarkiola sumatzen duen arte. Eta nahiz eta harreman bero, egonkor eta jarraikorra izan haur guztien garapenaren ezinbesteko oinarria, haurrik ahulenek izaten dute pertsonen arteko loturen jarraikortasunaren behar handiena.

Sakon ezagutzen duen eta haren jokaerak ongi ulertzen dituen hezitzailea has daiteke harentzat ezohikoak edo problematikoak diren elementuak poliki-poliki sartzen, haurrarentzat arazo-iturri izan daitezkeen gauzak alde batera utziz, beti ere.

Behin, hamazazpi hilabeterekin, Petra izutu egin zen jolastokian zarata handi bat entzun zuenean. Hurrengo lau hilabeteetan ez zuen leku horretara joan nahi izan, eta ohean jolasten zuen bakarrik. Hezitzailea umea jolastokira ohitzen saiatu zen berriz ere poliki-poliki. Jatordu bakoitzaren ondoren, umea besoetan hartu, jolastokira hurbildu eta minutu batzuk igarotzen dituzte han, lekuaz eta jostailuez hitz egiten dion bitartean. Hiru hilabete beharko ditu umea bazter hesituan arazorik gabe utzi aurretik, bera ondoan eserita geratzen den bitartean. Eta Petrak beste bost hilabete beharko ditu hesiei uko egin eta beste umeekin batera aretoan jolasteko.

Haur hauek guztiak eta garapen-erritmo ezberdinez hezitako beste askok emaitza oso onak lortu zituzten arlo motorean, intelektualean, afektiboan eta sozialean, bakoitzak bere erritmoari jarraituz.

Eta atzerapena edo minusbalia duten haurrek ere, nahiz eta estimulatuak ez izan ekintza ezberdinak egiteko, garapen maila ona erdietsi zuten, jarduera librean oinarrituta, bakoitzaren ekimena abiapuntu, beste edozein haurrek dituen baldintza materialak, afektiboak eta sozialak eskainita, ezaugarri hauek baititu gure institutuaren heziketa giroak.

Era berean, bakoitzak bere garapen-etapa bakoitzean aktibitate maila berbera erakutsi zuen. Hazi ahala ez ziren pasibotasunetik aktibotasunera igaro, hau da, baldartasunetik trebetasunera, baizik eta beren garapen prozesu guztian aktibitate maila berari eutsi zioten, eta horri esker gero eta eginkizun konplexuagoak burutu ahal zituzten denbora igaro ahala.

Beharrian bereziak dituzten haurrek ezberdintasuna nabarmenak azaltzen dituzte garapen-mailan, minusbaliaren izaeraren eta larritasunaren arabera. Horregatik, haur hauek giro terapeutiko osasungarri batez goza ahal izateko, beharrezkoa da jarduera berezi eta ezberdinak asmatzea, haur bakoitzaren nortasunari eta arazoei ondo egokitzen zaizkienak, beti ere.

Argitaralpenak:

- *In-fan-cia* núm 70, noviembre-diciembre 2001, 5-10 or.
- Falk, J. "Mirar al niño", 1997, Buenos Aires: Ed. Ariana Fund. Ari/Sèvres, Asociación Internacional Pikler (Lóczy), 49-61 or.